

UPV/EHU_n IKERKETARAKO
LAGUNTZEN DEIALDIA
(2015)

OHIKO GALDERAK

(Eguneratuta 2015eko apirilaren 13an)

1. *Ikerbasque batek parte hartu al dezake UPV/EHUn ikertzen hasteko edo ikertzera itzultzeko laguntzetan?

Ez, ezin du. Deialdian berariaz debekatzen ez den arren, laguntza hauek ikertzen hasten direnentzat direla ulertzen da, ez dagoeneko ezagutza eta ibilbide zientifiko bat badutenentzat.

*UPV/EHUn ikertzen duen nazioarteko aditua. "Ikerbasque" programaren helburuetako bat edozein ikerketa arlotako talentu zientifikoa [EAEko](#) zentro eta unibertsitateetara erakartzea da. Gaur egun 100 ikertzaile baino gehiago dauzka EAEko zientzia eta teknologia sareko zentroetan inskribatuta.

2.- Eskatzaile batek aldi berean bi eskaera egin al ditzake?

Inork ezin du eskaera bat baino gehiago egin modalitate berean. Baina bai modalitate desberdinetan aurkeztu aldi berean, UPV/EHUn ikertzeko laguntzen deialdi honetan. Lehenengo bi modalitateen kasuan, eskaeraren ebaluazioa positiboa bada, pertsona horrek bat aukeratu beharko du. Hala ere, III. modalitatearen kasuan, azken modalitate honetako eskaerak izango du lehentasuna.

3.-Eszedentzian egon naiz 3 urtez, eta orain ikerketa proiektu bat eskatu nahi dut; I. modalitatearen bidez egin behar dut?

Ez duzu zertan. Ez zaude I. modalitatearen bidez egitera behartua. II. modalitatara aurkez zaitezke, baina honako alderdi hauek hartu behar dituzu kontuan modalitatea erabakitzerakoan:

- I. modalitatean, "Historia Zientifikoa" balorazio irizpideak 15 puntu ditu. II. modalitatean, aldiz, 25 puntu.
- I. modalitatean diruz lagundutako kopurua II. modalitatean diruz lagundutakoa baino txikiagoa da.

4.-II. modalitatea, 2015ean jardunean dauden ikertaldeetako bateraezintasuna:

A. A motako proiektua: Bateraezintasunak ikertaldeari bakarrik eragiten dio; ikertzaile nagusia 2015ean jardunean dagoen ikertalde batean egon daiteke, betiere, baldintza hauek betez gero:

- Doktore izatea, lanaldi osoan jardutea eta 41 urte baino gutxiago izatea 2015eko abenduaren 31n.
- Lehia deialdietan, hau da, kanpoko deialdietan, urtebetetik gorako iraupena duten proiektuetan ikertzaile nagusi ez izana.

B. B motako proiektua: 2015ean jardunean dagoen ikertalde batean egonez gero, ezin du ikertzaile nagusi gisa zein taldekide gisa parte hartu.

5.-Taldea bera aurkeztu al daiteke II. eta III. modalitateetan, soilik ikertzaile nagusia aldatuta?

Ez, eskaera berbera dela ulertzen da. Ikertzaile nagusiak horietako bat aukeratu beharko luke, deialdian adierazten den bezala.

6.-III. modalitatean, eskatuko den gehienezko kopuruan, barne hartuta al dago enpresaren ekarpena?

Ez, gehienez 20.000 euroko diru-laguntza eskatu ahal izango da urteko, eta 2.000 euro pertsonako eta urteko.

Adibidea:

UPV/EHUri eskatuko zaion gehienezko kopurua (40.000 €) = A

Erakundearen gutxienezko ekarpena (% 20 x C) = B

Eskatutako Guztizko Kopurua = C

(Bakoitzaren ekarpena eskaera osoan agertzen da).

OHARRA: Lankidetzaren hitzarmenean adierazten den bezala, enpresek beren ekarpena (% 20 gutxienez), gehi BEZ, ordaindu behar dute.

7.-Ikertzeko laguntzaile akademikoak, Unibertsitate Araudian ezarritako prozeduren arabera.

Atal hau UPV/EHUko taldeetan parte hartu nahi duten eta horretarako eskaera bat egin eta, azkenean, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu behar duten kanpo laguntzaileei buruzkoa da. Prozedura hau Sailaren oniritziarekin hasten da, eta Gobernu Kontseilutik pasatu beharko litzateke.

8.-UPV/EHUko ikertzeko laguntzak, I. modalitatea. Langile ez iraunkorrak ikertzaile nagusi izan al daitezke?

Bai. Kasu honetan, 5.1.2 oinarrian adierazten den punturen bat eta 5.2 oinarria bete beharko dira.

9.-Juan de la Cierva ikertzaile batek ikertzaile nagusi gisa parte hartu al dezake UPV/EHUko Ikertzen Laguntzeko Deialdiko II. modalitatean?

Juan de la Cierva ikertzaileak langile ez iraunkorren atalaren barruan daude, beraz, UPV/EHUko Ikerketarako Laguntzen barruan, eta soilik ikertzaile nagusi izan daitezke Ikertzen Hasteko I. modalitatean. II. eta III. modalitateetan soilik taldekide gisa parte har dezakete, izan ere, ikertzaile nagusiak langile iraunkorrak aipatzen diren atalaren barruan egon behar du. Atal horretan barne hartzen dira iraunkorrak ez diren zenbait figura; Ramón y Cajal ikertzaileak eta fellow-ak.

10.-III. modalitatean, lankidetzaren hitzarmena epe barruan sinatzea lortu ezin bada, nahikoa izango litzateke erakundearen idazki bat, hitzarmena sinatzeko konpromisoa hartzen duela adierazten duena?

Bai, kasu horretan, hitzarmena sinatzeko izapideak hasi direla egiaztatzen duen ziurtagiri edo agiri bat aurkeztu beharko litzateke.

11.-Unibertsitatea-Gizartea proiektuetan, bi ikertzaile nagusik koordinatu al dezakete proiektua?

Ez, deialdi honetan, modalitate guztietan, soilik ikertzaile nagusi bat egon daiteke.

12.-Nola entregatu behar da 32. oinarrian aipatzen den Etika Batzordearen Aldeko Txostena?

Nahikoa da eskaerarekin batera kopia bat paperean entregatzea, izan ere, IKERTU ezin da erantsi.

13.-Etika Batzordearen Aldeko Txostena eskatu dut, baina, hilean behin biltzen denez, ezin izango dut epe barruan aurkeztu. Zer egin behar dut?

Nahikoa da izapideak hasi direla egiaztatzen duen ziurtagiri edo agiri bat entregatzea.

14.-12. oinarrian, azpiegitura atalean, eskatu al daitezke funts bibliografikoak?

Bai.

15.-II. modalitatean, B motako proiektuetan, gutxienez bi doktoreko taldea eskatzen da. Eskaeran bi doktore bakarrik gaude, eta proiektuaren indarraldian erretiroa hartuko du horietako batek. Zer ondorio ditu horrek proiektuarentzat? Doktore horren ordez beste bat jarri beharko litzateke? Salbuespen bat denez, amaitzeko falta den denboraren arabera, proiektu horri eutsi ahal izango litzaioke?

Kasu horretan, gutxieneko taldearen baldintza proiektuaren indarraldi osoan bete behar denez, hirugarren doktore bat sartu beharko zenukete, une oro baldintza betetzeko.

16.-UPV/EHUK hitzarmen bat sinatu du Biocruces Institutuarekin, ikerketa proiektuetan lankidetzan jarduteko. Hitzarmen horri jarraikiz, deialdi honetan parte hartu al dezakete Gurutzetan lan egiten duten ikertzaileek?

Ez, hitzarmen horretan adierazten da UPV/EHUko langileak Institutuan integratzen direla, ez alderantziz.

Fundazioa beste erakunde bat da. Beraz, deialdietan UPV/EHUko langileak bakarrik izan daitezkeenez taldekide, Biocruces Fundazioak kontratatutako pertsonak ezin dira ikertaldeko kide izan.

17.-Aurkez al daiteke II. modalitateko proiektu batean ikertzaile nagusi gisa eta III. modalitateko beste batean taldekide gisa?

Bateraezintasunak pertsonari dagozkie, hau da, inor ezin izango da modalitate bereko eskaera batean baino gehiagotan agertu.

Modalitate desberdinetako eskaeretan agertzen direnek, eskaera horiek onartzen badira, horietako bat aukeratu beharko dute. III. modalitateko eskaera batean agertzen bada, automatikoki emango zaio baja gainerako modalitateetan.

18.-Zein data jarri behar da proiektuaren hasiera datan?

2015eko urriaren 1a.

19.-“Sail eta institutuen eta UPV/EHUko ikertaldearen baimena”, ikerlari nagusiaren sailak sinatzen badu?

Bai, nahikoa da ikerlari nagusiaren sailaren sinadurarekin.

20.- III. Modalitatean, behin proiektuaren aldeko ebazpena dugula, egokitu daiteke enpresaren ekarpen ekonomikoa UPV/EHUk emango digun laguntzara?

Ez, enpresak diru-kopuru zehatz bat emateko konpromisoa hartzen du. Ekarpen honek garrantzia handia izango du proiektuaren azken balorazioan. Izan ere, 20 puntuz ebaluatuko da gehienez. Hortaz, kopurua ezin izango da aldatu behin eskaera aurkeztuta.

21.- III. Modalitatean, zer egin behar dut aukeratu dudan enpresa edo erakunde soziala ez bada azaltzen Ikertun?

Kasu honetan, ikertu@ehu.eus helbidera mezu bat igorri beharko duzu ahalik eta azkarren alta eman diezaioten.